

5. Hasperena: jatorriak, irregularitateak eta horien azalpena.

Hasperenaren historia:

Lekukotasunen arabera noizbait orokorra izan da euskararen eremu guztian. Hasperenketa bazegoen A Eren inbentarioan (/m/ eta /f/ ez). Azken 60 urtetan gutxienez estatus fonemikoa du. Historian zehar hasperenaren lekukotasunak: (a) Luchaire: “Lekukotasunak daude Akitanieran eta Erdi Aroan”; (b) M. Pidal: Errioxan eta Burgosen beste hainbat lekukotasun; (c) Hegoaldean lekukotasun gutxi.

Hasperenketaren jatorriaz; Trask (1997): euskaraz /h/ak ez dira etimologikoak. Trasken erregelak ematen ditu /h/ nondik sortzen den esateko, azentuarekin lotuak. Bi /h/ mota bereizten ditu: alde batetik, hitzak bereizteko balio dutenak (hasperenak balio etimologikoa, adib. “sei/ sehi”) eta bestalde, esanahia bereizteko balio ez dutenak (ez dira etimologikoak, adib. “behar”).

Mitxelenaren arabera, hasperena ondoko bost ingurune hauetan ager zitekeen:

- (1) Hitz hasieran (# __): “herri”, “haur”...
- (2) Bokal artean (V __ V): “ahate”, “ohe”...
- (3) Diptongo eta bokal artean (Dipt __ V): “oihan”, “leiho”...
- (4) Ozen ondotik (“lh”, “nh”, “rh”, “rrh” __): “elhe”, “senhar”, “erhi”, “urrhe”...
- (5) Herskari leherkari hasperendunak (“ph”, “th”, “kh”). Ez dira etimologikoak, ez baitute sistema fonologikoaren berreraiketan unitate propiorik eskatzen. Hizkuntza gehienetan kontsonante hasperendunak ahoskabeak dira.

Jatorriari begira, Mitxelenak balio etimologikodun hasperenak sailkatzeko lau sail proposatu zituen:

- (1) AE-ko “h” zahar batetik letorkeena. “h” > “h-”: “hortz”, “behi”...
- (2) Latinezko “f” batetik letorkeena; “f-” > “h-”. Euskaraz “f” fonema inbentarioaren barruan ez zegoen kontsonantea izanik, zaila da jakiten aldaketa hori euskaren barruan gertatu den edo zuzenean gaskoieratik horrela etorri zen: “forma” > “horma”.

(3) Bokalarateko “-n-” zahar batetik letorkeena. VnV > VhV. Bokal arteko “n” ahulak, maileguetan edota jatorrizko hitzekin bokalarateko posizioan “h” eman du: “ahate”.

(4) Hitz hasierako herskari ahoskabe edo bortitz batetik letorkeena; “Halsko” / “Talsko”, “harri” / “*kar”; hasierako posizioan dagoen “h”-ak leherkari bortitza eman du.

Hauetaz gain badira...

(a) Etimologikoak ez diren /h/-ak (batez ere leherkariei dagokienez). “harroka” = “harri” + “roca”, “hezkabia” = “hatz” + “scabi”.

(b) Azalpenik gabeko /h/-ak. “arena” > “harea”: “-n-” > “-h-” eman izan balu “*areha” litzateke. Agian /h/ bazegoen eta ezkerretara mugitu zen: “arena” > “areha” > “harea”.

(c) Maileguetako /h/-ak. Maileguetan hasperenketa gehitzeko jatorrizko formetan ere azalpena behar dugu, maileguak jatorrizko formetara egokitzen baitira eta ez alderantziz.

Mitxelenaren hipotesia: /h/ asko /n/-tik datoz. “arena” > “harea”.

Irregularitateak:

1. “ibar” / “hibai”, “idor” / “hidoi” kasuak. Zergatik batzuk “h” eta besteek ez? “h”-a ez datorrelako “hur”-etik, 3. silabako “*-n-” > “h”-tik baizik. Adibidez:

“*hur-dor” > “idor” / “*hur-don-i” > “hidoi”

“*hur-bar” > “ibar” / “*hur-ban-i” > “hibai”.

2. Badaude zenbait kontraesan: a) Herri batetik bestera (“hibai” vs “ibai”). b) Familia etimologikoak. Dena den, kontraesan dialektalek ez dute “h”-aren izaera etimologikoa eta antzinatasuna zalantzan jartzeko balio, baina familia etimologikoak bai. Azken hauek azentuarekin dute lotura. Adibidez, “abil” / “habil”, “hire” / “eure”...

“hire” = “hi + re”

“eure” = “hi + haur + re” □ 1. “h” legez galdu (h.....h > Ø.....h). “*hihaure” > “*ihaure”. 2. Grassmann-en legea. Gramatikalizazioz paradigma osora hedatu da: “zeure”, “geure”...

3. Diptongo ondoko zenbait “h” azaltzeko, Mitxelenak lehen ez zegoen “h” bat gehitu dela esan zuen: “oihan”, “oihu”... Honen aurka, Lakarrak “h” ez, baizik eta “i” gehitu dela baieztatu ahal izan da.

a. “Saihets”: “samur”, “sakon”, “sabai”... “sa-” aurrizkia da, ez “sai-”. “saihets” : “sa (i) + hets”.

b. “Eihar”: “*enar” > “*ehar” > “eihar”.

d. “Eiho”: “*eno” > “*eho” > “eiho”.

4. Kasu batzuk azaltzeke daude (“harma”, “hautatu”, “hogen”...), nahiz eta ez diren ugari, “h” guztien % 2-a edo.